

BARRUTIKO KONTSEILUEN JARDUNAREN ETA ARAUTEGIAREN BERRIKUSPENA


**Herritarrentzako Arreta, Partaidetza eta Barrutien Saila
Área Atención Ciudadana, Participación y Distrito**




- ❑ 2016. urtean Barrutiko Kontseiluen jardunaren eta arautegiaren berrikuspena egiteko hartutako konpromisoari erantzunez, Bilboko Udalak parte hartzeko prozesua jarriko du abian, garrantzizko ordezkaritza duten taldeen eta pertsonen partaidetza eta lankidetzak bultzatzeko.
- ❑ Aurkezten dugun parte hartzeko prozesuak Bilboko Udalaren Herritarren Partaidetzarako 2015-2019ko Estrategian lehenengo ardatzaren barruan, hau da, “dauden partaidetza egiturak” azpiataleko ekintza hauei erantzun nahi die:
 - 1.3 - Parte hartzeko organoez eta bideez ari diren udal arautegiak (Barrutietako Kontseiluen Arautegia) berrikustea eta hobetzea.
 - 1.4- Barrutietako kontseiluen jarduna berrikustea eta hobetzea, auzotarrek parte hartzeko espazio gisa duten funtzioa indartzeko.
 - 1.5- Sail bakoitzak barrutietako kontseiluei helarazi beharreko udal informazioa zehaztea.
 - 1.6- Herritarren proposamenak egituratutako partaidetza-organoetara bideratzea (Barrutiko Kontseiluak)

- ❑ Prozesuan parte hartzeak ez ditu sekula gutxituko Udalaren gobernu-organoek erabakiak hartzeko legez dituzten ahalmenak. Kasu honetan, erabakia hartzeko ahalmena duen organoa Osoko Bilkura da.
- ❑ Proiektu honetan parte hartuko duten pertsonei zuzendutako aurretiazko informazio eta prestakuntza-prozesua egitea oso garrantzitsua da.
- ❑ Aurreikusitako proiektuak Bilboko Udalean dagoen herritarren partaidetzaren, gardentasunaren, Gobernantzaren eta beste zenbait arloetan garatutako ekimenekin koherentea izan beharko du.
- ❑ Gizarteko sektore guztiak sartzeko bezain irekia den parte hartzeko prozesua izatea behar-beharrazkoa da eta era berean parte hartzeko prozesuaren intentsitateak herritarren benetako eskarira egokituta egon beharko du.
- ❑ Ezinbestekoa da prozesua amaitu ondoren satisfazioaren ebaluazioa egitea.


4. PARTE HARTZEKO PROZESUAREN FASEAK



3. PARTE HARTZEKO PROZESUAREN FASEAK– I Fasea



FASEA	FASE BAKOITZAREN EZAUGARRIAK	AMAITZEKO DATA/EPEA
1 - FASE DESKRIPTIBOA Parte hartzeko prozesuaren ezaugarriak zehaztea.	1.1 Prozesuaren izaera eta garrantzia. Eztabaidagaiaren deskripzioa.	2016ko URTARRILAREN 15a
	1.2 Prozesuaren faseak zehaztea.	
	1.3 Interes-taldeak identifikatzea.	
	1.4 Arlo honetako aholkularitza zientifikoaren eta/edo adituaren premia erabakitzea	
	1.5 Prozesuaren gehieneko iraupena. Epeak	
	1.6 Ondorioak ateratzeko formatua zehaztea	
	1.7 Talde politikoei ematea eta aportazioak batzea	2016ko OTSAILAREN 8a



1 2 3 4 5 6

INTERES-TALDEAK

- ☐ BARRUTIKO KONTSEILUETAKO KIDEAK (OSOKO BILKURA ETA BATZORDEAK)
- ☐ TALDE POLITIKOAK
- ☐ UDAL SAILAK
- ☐ HIRITARRAK

**AHOLKULARITZA
BEHARRA**

- ☐ PROZESUAN ZEHAR LAGUNTZA TEKNIKOA ETA DELIBERAZIO ETA EZTABAIDA TALDEEN DINAMIZAZIOAN LAGUNTZA PRESENTZIALA

**ONDORIOAK
HARTZEKO
FORMATUA**

- ☐ PARTE HARTZEKO PROZESUAREN AZKEN ONDORIOEK ADOSTASUNAREN BITARTEZ AKORDIOA LORTUTAKO ATALAK ZEHAZTUKO DITUZTE

3. PARTE HARTZEKO PROZESUAREN FASEAK– II Fasea

1 2 3 4 5 6

FASEA	FASE BAKOITZAREN EZAUGARRIAK		AMAITZEKO DATA/EPEA
2 – INFORMAZIOA AURRETIAZ BATZEKO ETA DOKUMENTUA EGITEKO FASEA	2.1 Prozesurako eskuliburuak egitea.	Proiektu honetan parte hartuko duten pertsonen zuzendutako aurretiazko informazio eta prestakuntza-prozesuaren deskripzioa. Prozesu osoaren eta bere agendaren eta mugarrien deskripzio erraztua.	2016ko MARTXOAREN 1a
	2.2 Udaleko sailei elkarriketa egiteko gaia izango den dokumentua egitea eta elkarriketak egitea.	Barrutiko kontseiluekin lotura duten edo eduki dezaketen udal sailei elkarriketa egitea	
	2.3 Barrutietako pertsona aktiboei elkarriketa egiteko gaia izango den dokumentua egitea eta elkarriketak egitea.	Barrutietako sektore bakoitzaren erreferentziako pertsonen elkarriketa egitea.	
	2.4 Herritarrentzako galde-sorta prestatzea.	Barrutiko kontseiluen funtzionamenduari buruzko galdera errazez osatutako galde-sorta.	
	2.5 Prozesuaren berri emanaz Barrutietako Udaltegietan euskarri moduan jarriko diren informaziorako materialak prestatzea.		
	2.6 Kontseiluetan eztabaidatuko den galde-sorta prestatzea.	Eztabaidatzeko eta parte hartzeko hausnargai izango den galde-sorta prestatzea. Honako gaiekin lotutako alderdiak jasoko dira bertan, besteak beste: herritarren eskariak kontseiluetara bideratzea, kontseilura heldu behar den sail bakoitzeko informazioa, kontseiluak sendotzea parte hartzeko espazio moduan, Barrutiko Kontseiluen Arautegia: Eginkizunak – Osaera – Organoak – Bilerak – Aktak - Idazkaria	

2.2 Elkarrizketa Udal Sailekin**DESKRIPZIOA**

Elkarrizketa pertsonala Udal Saitetako arduradunekin, Barrutietako Kontseiluetan parte hartzen duten haiekin arreta berezia jarritz.

HELBURUA

Barrutietako Kontseiluen funtzionamenduaz hausnarketa egin eta pertsona jakin batzuen ikuspuntua ezagutu, parte hartzeko prozesu honetan zer ekarri izan dezaketelako.

GALDE-SORTA

Eztabaida irekia hurrengo gai-bloke hauetan oinarrituz: 1.- Herritarren parte-hartzea eta Kontseiluak, 2.- Barrutietako Kontseiluak, 3.- Eskariak bideratzea eta informazioa gestionatzea, 4.- Elkarteen erregistroa eta beste alderdi batzuk.

**UDAL
SAILAK**

- Aurrekontuak
- Garapen Ekonomikoa
- Gizarte Ekintza
- Berdintasuna, Lankidetzatza eta Jaiak
- Obrak, Hiri Eraberritzea eta Espazio Publikoa
- Hiri Plangintza

- Kultura
- Hezkuntza eta Euskera
- Gazteri eta Kirola
- Segurtasuna eta Babes Zibila
- Zirkulazioa eta Garraioak
- Osasuna eta Kontsumoa

3. PARTE HARTZEKO PROZESUAREN FASEAK– II Fasea

1 2 3 4 5 6

2.3 Elkarrizketa Barrutietako zenbait pertsona aktiboekin

DESKRIPZIOA

Elkarrikezta pertsonala eta norbanakoa Barrutietan atal ezberdinetan aktiboak diren zenbait pertsonen (gaur egun Barrutian parte hartu zein ez).

HELBURUA


Barrutietako Kontseiluen funtzionamenduaz hausnarketa egin eta pertsona jakin batzuen ikuspuntua ezagutu, parte hartzeko prozesu honetan zer ekarri izan dezaketelako.

GALDE-SORTA

Eztabaida irekia hurrengo gai-bloke hauetan oinarrituz: 1.- Herritarren parte-hartzea eta Kontseiluak, 2.- Barrutietako Kontseiluak, 3.- Eskariak bideratzea eta informazioa gestionatzea, 4.- Elkarteen erregistroa eta beste alderdi batzuk.

PARTE HARTZAILEAK

- Barruti bakoitzeko Auzokideen Elkarteetako pertsona bat (guztira 8 pertsona)
- Sektore bakoitzeko pertsona bat: Laguntzarako eta gizarteratzeko Elkarateak, Kultura, Jolas eta Kirol Elkarateak, Merkatarien Elkarateak eta bestelako Elkarateak (guztira 4 pertsona)
- Guztira 12 pertsona (6 emakumezko / 6 gizonezko)

**2.4 Herritarrei zuzendutako galde-sorta (1/3)****DESKRIPZIOA**

Herritarrei zuzendutako galde-sorta partaidetzari buruzko izaera orokorreko galderekin.

HELBURUA

Bilbon parte hartzeko gaur egun dauden (edota berririk sortu beharko diren) gunen iraunkorren parte hartzearen kalitatea eta ezagutza ebaluatzeko informazio objetiboa eta eguneratua izatea.

**GALDE-SORTA
MOTA**


Deusto Innovacion Socialek egindako telefono bidezko inkesta (Erreferentzia Bilboko auzoetako hiri behatokia)

**LAGINAREN
AUKERAKETA**

- Unibertsoa: Bilbon bizi diren 18 urtetik gorakoak.
- Lagina: 384 pertsona. Laginaren $\pm\%5$ eko errorea $\%95$ eko konfiantzarekin Bilborako
- Hasierako galderak: Barrutia, Generoa, Adina, Elkarre batekoa / ez

2.4 Herritarrei zuzendutako galde-sorta (2/3)**GALDE-SORTA**

- 1.- Badakizu zein barrutitakoa den zure kalea edo auzoa? (BAI/EZ) Esaidazu zein.
- 2.- Bazenekien zure Barrutian udal Kontseilu bat dagoela eta bertan zure auzo edo barrutiko zenbait kontu aztertzen direla?
- 3.- Zure auzoan edo barrutian elkarteren bat ezagutzen duzu? (BAI/EZ)
Ezagutzen baldin baduzu, esaidazu zein izaera duen zuk ezagutzen duzuna hurrengoan artetik: Laguntzarako eta gizarteratzeko Elkartea, Kultura, Jolas eta Kirol Elkartea, Merkatarien Elkartea, Auzokideen Elkartea edo bestelako Elkartea.
- 4.- Bilboko Udalak bultzatzen duen parte hartzeko beste guneren bat ezagutzen duzu? (BAI/EZ) Esaidazu zein..
- 5.- Hurrengo egoera honi 1etik 10erako balorazioa eman (1 oso gutxi eta 10 asko):
Udaletxean ordezkariak dituzten udal talde politikoez gain, zein da zure auzoko edo barrutiko kontuak zure ordezkariak erabakitzeke ordutan ondoen ordezkatu ahal zaituen taldea:
a) Gaian adituak diren udal teknikariak- b) Gaian aditua den Unibertsitateko pertsonala-
c) Auzokideak banaka- d) Elkarateak - e) Aurreko bat ere ez


**2.4 Herritarrei zuzendutako galde-sorta (3/3)****GALDE-SORTA**

6- Zure auzoaren edo barrutiaren mugen barruan, zure ustez zeintzuk dira Udalak zure iritzia jaso beharko lukeen gaiak?, zeinetan nahi izango zenuke parte hartu? Obrak / Kultura / Jaiak / Zirkulazioa eta garraioak / Kirola / Euskera / Berdintasuna / Besterik

7.- Udalak zuren auzoan edo barrutian egiten dituen jarduerak ezagutzeko bideak zeintzuk dira?

- a) Komunikabide idatziak (egunkariak,..)
- b) Ikusentzunezko komunikabideak (irratia, telebista,..)
- c) Komunikabide digitalak
- d) Giza-sareak (Facebook, twitter,..)
- e) Udala bera (Infobilbao, web orria, Bilbao aldizkaria,..)
- f) Elkarteen buletinak eta aldizkariak
- g) Beste bide batzuk
- h) Ez ditut ezagutzen Udalak nire barrutian garatzen dituen jarduerak.

3. PARTE HARTZEKO PROZESUAREN FASEAK– III Fasea



FASEA	FASE BAKOITZAREN EZAUGARRIAK		AMAITZEKO DATA/EPEA
3 – JAKINARAZTEKO FASEA	3.1 Herritarrei prozesuaren berri ematea		2016ko Martxoaren 1etik 17ra bitartean
	3.2 Parte hartzeko prozesua aurkeztea barrutietan eta galde-sorta ematea	Saio bat barruti bakoitzean Kontseiluetako kide guztiei bidaliko zaie galde-sorta, aurkezpenean egon zein egon ez.	
	3.3 Informazio-erakusketa jartzea barruti guztietan		

3. PARTE HARTZEKO PROZESUAREN FASEAK– IV Fasea

1 2 3 4 5 6


FASEA	FASE BAKOITZAREN EZAUGARRIAK		AMAITZEKO DATA/EPEA
4 – EZTABAIDATZEKO ETA ADOSTASUNAK BILATZEKO PROPOSAMENEN FASEA	4.1 Barrutiko kontseiluetako kideek galde-sorta betetzea	15 eguneko epea emango zaie betetzeko	2016ko APIRILAREN 8a
	4.2 Aurretiazko txostena egitea	Galde-sortak jaso, aztertu eta txostena egingo da, honakoak adierazita: • Adostutako alderdiak. • Nolabait baloratutako alderdiak (eztabaida behar lezaketenak) • Akordiorik lortu gabeko alderdiak (eztabaidatu beharrekoak) Txostena egin ondoren, galde-sorta bidali zitzaien pertsonen bidaliko zaie, eztabaidatzeko bilerarako deialdiarekin batera.	2016ko APIRILAREN 29a
	4.3.- Elkarrizketa Udal talde politikoekin		2016ko APIRILA
	4.4 Eztabaidatzea eta adostasuna bilatzea	Eztabaidarako bilera bat egingo da barruti bakoitzean. Parte-hartzearen alorrean aditua den pertsona batek dinamizatuko du bilera. Bileran honakoak egingo dira: ○ Betetako galde-sortetatik ateratako txostena azaldu. ○ Adostu gabeko alderdiak eztabaidatu (bileren bideragarritasuna ziurtatuko duen gehieneko item kopurua finkatuko da).	2016ko MAIATZAREN 2tik 17ra BITARTEAN

3. PARTE HARTZEKO PROZESUAREN FASEAK– V Fasea

1 2 3 4 **5** 6

FASEA	FASE BAKOITZAREN EZAUGARRIAK		AMAITZEKO DATA/EPEA
5 – TXOSTENAK EGIN ETA ATZERA EMATEKO FASEA	5.1 Prozesuaren laburpenaren dokumentua egitea eta parte-hartzaileei bidaltzea	Eztabaida-prozesua amaitu ondoren, Barrutiko kontseiluetara bidaliko den dokumentua egingo da	2016ko EKAINAREN 24a
	5.2 Prozesuarekin duten satisfazioari buruzko inkesta bidaltzea	Satisfazio-inkesta banatuko da. Txostena egingo da jasotako datuekin. 15 egun betetzeko	2016ko EKAINAREN 24a
	5.3. Ekarpinak jasotzea	Prozesu osoan zehar jasoko dira beharrezkoak diren ekarpinak, baina fase honetan ez da berriro eztabaidatzeko aukerarik emango; bakar-bakarrik jaso edo baztertu egingo dira ekarpinak. Azken alegazioak egiteko epea zabalduko da prozesua amaitzen denean, arautegi berriaren proiektuaren onarpenaren azken fasean, hain zuzen.	2016ko UZTAILAREN 1a
	5.4 Behin betiko txostena egitea	Behin betiko txostenak honako hauen ondorioak jaso beharko ditu: - Herritarrei egindako inkestarenak. - Udal sailei bidalitako galde-sortarenak. - Barrutietako pertsona aktiboei egindako elkarriketarenak. - Barrutiko kontseiluetan eztabaidatutako galde-sortarenak.	2016ko ABUZTUAREN 31a

3. PARTE HARTZEKO PROZESUAREN FASEAK– VI Fasea



FASEA	FASE BAKOITZAREN EZAUGARRIAK		AMAITZEKO DATA/EPEA
6 – ERABAKIAK HARTZEKO FASEA	6.1 Talde politikoen eztabaida	Parte hartzeko prozesutik atera den txostenean oinarritutako eztabaida.	2016ko IRAILAREN 23a
	6.2 Azken proiektua egitea. Arautegia eta barruko jarraibideak		2016ko URRIAREN 6a
	6.3 Derrigorrezko izapidetza administratiboa.	- Aholkularitza juridikoaren txostena - Gobernu Batzordera bidaltzea - Arautegiari buruzko batzorde berezia - Zuzenketak aurkezteko epea - Espediente osoa Osoko Bilkurara bidaltzea	2017ko URTARRILAREN 10a
	6.4 Osoko Bilkurara eramatea hasieran onartzeko		2017ko URTARRILAREN 26a
	6.5 Alegazioak egonez gero, osoko Bilkurara bidaltzea		2017ko MARTXOAREN 23a
	6.6 BAO on argitaratzea behin betiko proiektua	15 egun indarrean sartzeko	Arautegia onartzen den egunaren arabera

GAIK

- ☐ Gai-blokeak: 1.- Herritarren partaidetza eta Kontseiluak, 2.- Barrutietako Kontseiluak, 3.- Eskariak bideratzea eta informazioa gestionatzea, 4.- Elkartearen erregistroa eta beste alderdi batzuk.
- ☐ Erantzunetan hiru aukera: a.- Ados nago, b.- Ez nago ados, c.- Ez dakit
- ☐ Bloke bakoitzaren amaieran galdera ireki bat dago.

AURKEZTEKO EGUNAK

- ☐ Aurkezpenak Barrutietan– Martxoaren lehenengo hamabostaldian.
- ☐ Galde-sorta posta elektronikoaren bidez bidaliko da **martxoaren 14tik 16ra bitartean**, plataformara sartzeko loturarekin.
- ☐ **GALDE-SORTA BETETA bidaltzeko AZKEN EGUNA: 2016ko MARTXOAREN 8a**

GALDE-SORTA

- ☐ **Elkarte** bakoitzak, galde-sorta bidaltzeko **helbide elektroniko bakarra** emango dio Kontseiluko Idazkariari .
- ☐ Udalak helbide elektroniko horretara mezua bidaliko du, galde-sortan sartzeko loturarekin eta hori bete ahal izateko jarraibideekin.
- ☐ Galde-sorta bakarra bete ahal izango da.
- ☐ Bestelako helbide elektronikotik jasotako galde-sortak baliogabetu egingo dira.
- ☐ Helbide elektroniko beretik galde-sorta bi edo gehiago agertuz gero, baliogabetu egingo dira denak eta emaitzak ez dira kontuan hartuko txostena egiteko datuak arakatzerakoan.
- ☐ Galde-sorta paperean inprimatzeko aukera. Ordenagailurik izan ezean, Barrutiko Idazkariarekin jarri harremanetan.
- ☐ Behin galde-sorta beteta, behin betikotzat jo eta bidali egingo da, berriz aztertzeko edota zuzentzeko aukera barik.
- ☐ Datuen konfidentzialtasuna.

EMAITZAK ETA EZTABAIDA

- ❑ Azken txostena: Barruti Kontseilu bakoitzerako emaitzak eta modu generikoan 8 barrutietarako:
 - **Adostasun-maila nahikoa** agertzen duten baieztapenak/itemak: baieztapenek/itemek adostasun maila nahikoa dutela joko da erantzunen %65 baino gehiago dagoenean ados edo desados edukiarekin.
 - **Adostasun-maila nahikorik** agertzen ez duten baieztapenak/itemak eta beraz, **eztabaidagarriak** izan daitezkeenak berariaz programatutako bileretan: baieztapenek/itemek adostasun maila nahikorik ez dutela joko da emaitzak aztertutakoan, erantzuteko aukeretako batek ere ez duenean gainditzen %65eko kointzidentzia.

ZALANTZAK, IRADOKIZUNAK ETA ARGIBIDEAK

- ☐ Prozesu hau bideratzeko ardura Herritarrentzako Arreta, Partaidetza eta Barrutien Sailarena da.
- ☐ Barruti Kontseiluetako idazkariak zalantzak argitzeko prest izango dituzue.
- ☐ barrutiak@bilbao.eus posta elektronikoa sortu da prozesuaren edozein momentutan bertara jo ahal izan dezazuen.

ESKERRIK ASKO

barrutiak@ayto.bilbao.eus

Bilbao, 2016ko otsaila/martxoa